Gure ustez, akats bat autortzea lehenengo urratsa da ikasteko eta akats horreek ez errepikatzeko. Gainera, uste dogu inteligentzia eta apaltasuna erakusten dituala, eta deskontuen kasuan eta Bizkaiko Garraio Partzuegokoen kasuan, gogorazoten deusuet daborduko azken 6 hilebete honeetako bigarren akats larria dala. Baina EH Bildu kezkatzen gaituen benetako arazoa da akats horreek zuzenean eragiten deusiela Bizkaiko familien ekonomiari, deskontu desbardinak izango dituelako lehenengo 14 egunetan. Gero, lehenengo hilebete eta erdian, zein laguntzailereren, zein tarifaren eta zein txartelen arabera. Nahaste itzela. Gaur goizean erosi deusat esaldia kazetariari, prentsan irakurri dodanean.

Eta kezkatzen gaitu, ganera, eta lehen esan deusut, erabagi horreek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako mobikortasun-parametroak homogeneizauko dituan tarifakazino-sistema bakarraren kontra joateak. Eta nik uste dot hori argi dagoala eta ez dozula ezer esan. Eta kezkatzen jarraitzen gaitu, gainera, beste behin be neurrien errentagarritasun ekonomikoa aurretik jarreak, gizarte eta/edo ingurumen errentagarritasunaren aurrean, eta zuek proponiduten zenduen neurria ez zan jasangarria, onartu eizu.

Nosotros tenemos una cosa muy clara. Lo que es bueno para los ciudadanos, también es bueno para EH Bildu. Y el planteamiento de descuentos era indudablemente bueno para los usuarios, y también es bueno para el medio ambiente natural.

Horregaitik, urtarrilean be poztu ginan herritarrak eta gizarte-eragileak euren erabagien aurrean mobilizau ziralako, presino horri eta oposizinoko taldeek erakunde-eremutik egin ahal izan dogun lanari esker, egoera hori bideratzea lortu dala uste dogulako, eta horri esker, zezeilaren erdialdetik edo hilaren 22tik aurrera %50eko deskontuak euki geinkez, gaur argitaratu dan moduan. Belu eta txarto, baina, gitxienez, deskontuak helduko dira.



Gidoia aldatzen ahalegindu zinién, billete bat ekuazino horretatik kanpo izten ahalegindu zinién, eta, gure ustez, oker, eta eszenatoki osoa jausi jatzuen. Eta barrero be atzera egin behar izan dozue enegarrenez. Eta azken aldi honetan buelta dezente emon dozuez, baina oraindino ez deuskuzue azaldu zergaitik CTBk, zuk, eta Euskal Alderdi Sozialistaren eta Alderdi Jeltzalearen akordioan jasoá egoana berretsi eta aurrera eroan zenduen.

Lehenago konpondu geinkean hori, Ganbera honetan talde guztien artean adostutakoa, luzapen hori, baina zuek nahiago izan dozue bakarrik ibili, eta txarto egin dozue. Kaosa, nahastea, nahasmena, zuek sortu dozue, ez eizue gainerakoen lepora eroan, mesedez, konpondu eizue lehenbailehen.

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. En el turno de réplica, por parte de la Diputación, tiene la palabra la señora Diputada General.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Señor Méndez, en su intervención decía humildad y asumir los errores. Toda la humildad por parte de esta Diputada General. Pero debemos intentar no enredar y no engañar a nuestra ciudadanía. Eso es lo que tenemos que intentar.

Y lo que tengo que decir a este respecto es que cuando no conocemos lo que va a pasar, cuando no sabemos en qué sentido va a regular el Estado, nosotros no podemos tomar decisiones. Así que no confunda a la gente, no enrede a la gente.

El transporte público, creo que desde la primera intervención está claro, es una prioridad política de este Gobierno desde el principio. Como ya se ha dicho, y en la intervención anterior también lo he dicho, para favorecer la cohesión social, la cohesión territorial, la sostenibilidad económica del medio ambiente y la actividad económica. Y la prioridad la tenemos presentada, porque ustedes la conocen, un plan en marcha. Y en ello seguiremos trabajando y tomando compromisos.

También decía usted que los abonos que tenemos en la actualidad no son el modo más adecuado para promover un compromiso por parte de la ciudadanía. Y pedía datos. En concreto, los datos que nosotros hemos utilizado para tomar esta decisión. Yo le daré un dato para decirle que en la actualidad estos títulos son la vía que tenemos para utilizar el transporte de forma regular, y que las decisiones que hemos tomado están dirigidas a reforzarlos.

Datuak emongo deustudaz, Mendez jauna, zuk eskatu deustazun lez:

Bidai50 batek 26,40 € balio dau tituluak, eta, beraz, Barik baino errentagarriagoa da hileko 28 bidaitik aurrera, eta errentagarriagoa da, halaber, noizbehinkako txartela baino, hileko 16 €tik aurrera (16 bidaia hilean).

Bidai 70 abonua 31,60 € balio dau, eta Barik txartela baino errentagarriagoa da hileko 33 bidaitik aurrera, eta errentagarriagoa da noizbehinkako txartelak baino, hileko 19 bidaitik aurrera.

Gazte70ek 26,40 € balio dau, eta Barik baino errentagarriagoa da 28 bidaatik aurrera, eta noizbehinkako txartela baino errentagarriagoa hileko 16 bidaitik aurrera. Hor daukazuz datuak.



Atzerapenari, zalantzei, zure itaunagaz mahai gainean jarri gura dozuzan nahasteei jagokenez, esango neuskizu, Mendez jauna, hemeroteke errepasetako. Gabonilaren 27an, interpelazioa formalizatu zendunean, CTBk %20ko deskontua aldi baterako tituluetan behin betiko onartu eban egunaren hurrengoa zan. Eta danok geunkazan zalantzak, danok genduzan zalantzak %50eko aldi baterako deskontuagaz zer jazoko zan. Eta gogorazoten deusuet data horreetan edozein aukera egoala mahai gainean, baita be luzapena ez, luzapena bai, gazteentzako eta lanbakoentzako dobako bidaiak be aitatu ziran. Halanda ze, CTBk hilaren 26an onartutako deskontua guztiz koherentea da guk geunkan egoereagaz. Egoera horretan argi egoan bakarria zan aldi baterako deskontua abenduaren 31n amaitzen zala, eta Aldundiak ez ekiala, jakina, Espainiako Gobernuak zer egingo eban. Gogoratu daigun Pedro Sanchez bera presidente izentau ebela zemendiaren 16an.

Denpora larregi hartu genduan, ez gina berandu ibili, zuzendu egin genduan? Guk itxaron egin genduan boletin hori argitaratu arte eta hilaren 28an argitaratu zan arauaren barri izan arte, eta CTBren deialdia urtarrilaren 2an, martitzenean, egin neban, eta Kontseiluak 4an neurria onartu eban. Zentzun horretan, izan behar dan bizkortasun guztia. Eta, gainera, kasu honetan garrantzitsuen ez da deskontua 4an, 3an edo 5ean onartzen dan. Garrantzitsuena da Bizkaiko herritarrek deskontu hori urte osoan euki ahal izango dabela. Badakizu edo jakin beharko zeunke zein dan Partzuergoak tasak onartzeko jarraitu behar dauen prozedura, eta horrek ezinezko egiten dauela herritarrek tarifa barri horreek berehala aplikatu ahal izatea. Baina garrantzitsuena da, Mendez jauna, urte oso batez eukiko dabezala.

Habla de dudas y de que nos ha costado rectificar nuestra decisión. Yo, sin embargo, no veo lo que usted ve. Lo que yo veo es que este Gobierno foral, nada más tomar el cargo y formar el Gobierno, a pocos meses, es un Gobierno que está actuando con responsabilidad a través del plan que presentamos. Y veo también a algunos grupos de la oposición en un momento de hiperventilación preelectoral. Viendo cómo estaban teniendo lugar los hechos, buscando réditos en su interés.

Bide batez, atzerapena, zuzenketa aitatu dozu. Zuek Galdakaon gobernetan dozuen lekuan, adibidez, lau aste beranduago doaz, Galdabusako erabiltzaileek %50eko deskontua izango dabe Bizkaiko gainerakoek baino lau aste geroago, orain dala egun bi argitaratu zalako Aldizkarian. Amaitzen joatearren.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Diputada general, vaya terminando por favor.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Amaitzen joateko, ni ez noa herritarrei guzurrik esaten eta ez noa guzurrezko itxaropenik zabaltzen. Aldundiak erantzukizunez hartzen ditu erabagiak, baliabideak emonaz erantzun ahal dogun neurrian; horregaitik, garraio publikoa gehien erabilten daben personei txartelaren prezioak jaitsi egiten deutseguz, eta garraio publikoaren sistema hobetzeko beste neurri batzukaz laguntzen dogu, hori be diru-kutxa publikoarentzat ahalegina da eta: 20.000.000 euro urtean.

Esa es nuestra responsabilidad, gestionar bien los recursos públicos para que los ciudadanos de Bizkaia tengan un sistema de transporte público de calidad.

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Diputada General. Pasamos al tercer punto del orden del día.



La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.12/E/2024/0000084](#))

Autor: De Madariaga Martín, Eneritz
(GM/TB-EB)

Asunto: Las medidas concretas de las que se vale la Diputación Foral para garantizar la salvaguarda del interés superior del menor en sus actuaciones.

Documento Principal:
([R.E.12/E/2024/0000084](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (11A)

Expediente: ([12/B/18/0000705](#))

3.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([12/E/2024/0000084SE](#))

Egilea: De Madariaga Martín, Eneritz
(GM/TB-EB)

Gaia: Foru Aldundiak bere jarduketetan adinbakoaren interes gorena babesten dala bermatzeko baliatzen dituan neurri zehatzak.

Dokumentu Nagusia: ([12/E/2024/0000084SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (11A)

Espedientea: ([12/B/18/0000705](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora Presidenta, y buenos días.

Beno, badakizue umeak eta nerabeak kalteberatasun bereziko egoeran dagozan herritarrak dirala, gero eta zahartuago dagoen eta, gainera, helduaroko balioen sistema baten oinarritzen dan gizarte baten. Egia da azken urteotan legegintza-mailan be aurrerapausuak emon dirala, umeen eskubideak bermatzeko politika garrantzitsuakaz; baina, era berean, esan geinke legegintza-aurrerapen horreetako gehienek umeak babes-objektu gisa kokatzen dabezala, eskubideen subjektu gisa baino gehiago. Eta babes-subjektuei buruzko tratu hori behar-beharrezkoa bada be, adibidez, pobreziari, desbardintasunari, indarkeriari, babesbakotasunari edo pobreziaren infantilizazioari buruzko zifrei erreparetan badeutsegu, oso beharrezkoa da, era berean, eskubidedun subjektu gisa kokatzea, eta, beraz, ona, politika publikoak egitean kontuan hartzea, umeak eta nerabeak zuzenean babesteko zerbitzu eta elementuetatik harago.

Eta, ildo horretan, badakizue Umeen Eskubideei buruzko Konbentzinoaren 3. artikuluko lehenengo puntuan ezarten dala erakunde publiko edo pribaduek, Gizarte Ongizateako, auzitegiak edo administrazino-agintariak izan, haurrei buruz hartzen dabezan neurri guztietan legegintza-organoek gauza bat hartu behar dabela kontuan: aintzat hartuko dan funtsezko kontsiderazinoa adinbakoaren interes gorena izango dala. Eta, puntu horren harira, erakunde publikook adinbakoaren interes gorena aintzat hartzearen ildotik, 2018ko maiatzaren 30ean, talde honek proponiduta, honako hau onartu zan aho batez:

Foru Aldundiari eskatu jakon adinbakoaren interes gorena Foru Aldundiaren politika publiko eta jarduera guztietan zeharka txertatzeko prozesuari ekiteko. Onartu zanetik urtebete igaro ondoren, Foru Aldundiari galdetu geuntsan zer ekintza egiten egozan Aldundiko sail guztietan, adinbakoak politika publikoetan daukan interes gorena kontuan hartu eiten, eta zer tresna erabilten ebilzan eta zer metodologia. Eta erantzunaren ardatza izan zan Aldundiaren ekintzaren ardatza dala adinbako guztiei euren eretxia, nortasuna, ingurunea zaintzea, zaintzak, babesa eta abar bermatzea. Era berean, Aldundiak bere erantzunean esan eban bere jarduerak printzipio horrek gidatuta egiten dituala, erakunkizun



publikoaz jokatuta, zerbitzuak eskura jarri eta horreek hartu ahal izatea bermatuz. Bereziki aitaten ditu kalteberatasun- eta babesbakotasun-egoerak.

Baina nik galdetzen dot ez ete dan neurtzen, sano gatxa da jakitea adinbakoaren interes gorena bermatzen dogun ala ez. Eta hori guztia oso ondo dago, baina hori ez zan onartutako proposamenaren helburua, eta, gitxiago hondino, Haurren Eskubideen Konbentzinoaren esparruan ezarritakoa betetea. Beraz, uste dot egokia dala ohar bat aitatzeari, 14garrena, esaldi hori interpretetako arazoan ondorioz sortzen dana. Honako hau dio: «Haurraren eskubidea bere interes gorena funtsezkotzat joteko». Zer esan gura dau horrek? Haurraren Eskubideen Batzordeak egiten dauen oharra argitzen dau:

“Ohar orokor honen helburua da Konbentzinoan parte hartzen daberen Estaduek umearen interes gorena kontuan hartu eta errespetauko dabela bermatzea. Behar lez kontuan hartzeko betekizunak definitzen dauz, bereziki erabagi judizial eta administratiboetan, bai eta haurrei eragiten deutseen beste neurri batzuetan be, banaka eta legeak, politikak, estrategiak, programak, planak, aurrekontuak, lege- eta aurrekontu-ekimenak eta jarraibideak onartzeko prozesuaren etapa guztietan. Hau da, oro har haurrei edo talde jakin bati jagokozan aplikazino-neurri guztiak.

Betebehar horren irismena dala-ta, beraz, betebehar hau ezartzen da: bermatu behar da haurraren interes gorena behar lez integrauko dala eta sistematikoki aplikauko dala erakunde publikoen neurri guztietan, lurralde- edo probintzia-erakundeak be kontuan hartuta, Konbentzinoan bertan jasoten dan lez. Era berean, adierazo dau betebeharra haurrei zuzenean edo zeharka eragiten deutseen erabagi eta neurri guztiei ezarriko jakela. Eta zer esan gura dau horrek? Ba Batzordeak dinoen moduan, betebeharra dala baita be nahitaez haurrei zuzenekoak ez diran neurrietarako, eta zenbait adibide ezartzen dauz, kasurako, garraioari, ingurumenari, etxebizitzari buruzko neurriak, zeharka hareei be eragiten deutseelako.

Bestalde, Batzordeak berariaz aitaten dau legegintzako organuen eta erakunde publikoen betebeharra 31. paragrafoan, eta honako hau azaltzen dau: edozein lege, erregelamendu edo hitzarmenen onarpena haurraren interes gorenaren arabera arautu beharko litzatekeela. Era berean, adierazoten dau haurrak bere interes gorena ebaluetako eta oinarritzotzat joteko daukan eskubidea esplizituki agertu behar dala jagokon legeria osoan, ez bakarrik haurrei buruzko arauetan. Betebehar hori aurrekontuei be ezarri behar jake. Eta, ildo horretan, ebaluazinoari buruzkoan, Konbentzinoak berak ezartzen dau haurren eskubideen ganeko ondorioak eten barik baloretako prozesu bat behar dala, edozein lege-proiektuk, proposamen politikok edo aurrekontu-esleipenek hurrengan izango dabean ondorioak aurreikusteko. Ezartzen dau ebaluau egin behar dirala haurraren eskubideen ganeko ondorioak, benetako aplikazino-ondorioak epaitzeko.

Beraz, eta 46. puntuan ezartzen dan moduan, haurraren interes gorena eskubidea, printzipioa eta prozedura-araua da, egoera jakin batean haur baten edo batzuen interesaren osagai guztien ebaluazinoan oinarritua. Horrek beragaz dakar haurraren interes gorena ebaluetea eta zehaztea, prozesu egituratutzat eta ebaluazinoan oinarritzat hartzen dauen berme zorrotzekotzat hartzen dala. Agintari publikoek, beraz, haurraren interes gorena ebaluetako eta zehazteko betebeharra errespetau behar dabe. Hori dala-ta, prozesu ofizialak ezarri behar dira, haurrari eragiten deutsean erabagietan dauen interes gorena ebaluau eta zehazteko bermeakaz, emoitzak ebaluetako mekanismoak barne. Izan be, Haurren Eskubideen Batzordeak haurren eskubideen ganeko eraginaren ebaluazinoan proponiduten dau aplikazino-neurri orokor gisa, CRIA izenekoak; tresna horri esker, politika publikoen arau-proposamenek, aurrekontu-erabagiek edo bestelako administrazino-erabagiek haurren eta gazteen gainean izan lekiezan ondorioak aztertu daitezke, egiten diran heinean, eta, beharrezkoa izan ezker, edozein eragin negatibo saihesteko edo arintzeko mekanismoak iradoki.



Laburbilduz, Haurren Eskubideen Batzordeak argi eta garbi agintzen dau aintzat hartu behar daela haurrek politika publikoetan daukien interes gorenak. Zein politikatan, zein unetan? Legeak, politikak, estrategiak, programak, planak, aurrekontuak, lege- eta aurrekontu-ekimenak onartzeko prozesuen etapa guztietan. Haurrei zuzenean eragiten deutseenak bakarrik? Ez, haurrei zuzenean edo zeharka eragiten deutseen erabagi eta neurri guztiei apliketan jake betebeharra. Administrazio honi eragiten deutso? Bai, baita lurralde- edo probintzia-erakundeei be, erakunde publiko guztiei. Zelan egiten da? Bada, begira, Haur eta Nerabeen Bulegoak berak eta Arartekoak oso gako zehatzak emon dabez haurraren eta nerabearen eskubideak euskal politika publikoetan txertatzeko, eta bereziki aitatzen dabe adinbakoaren interes gorenak txosten horreetako batzuetan. Gida bat dago, haurren ganeko eraginaren ebaluazioak zelan egin zehatz-mehatz azaltzen dauena. Arartekoak be parte hartu eban ha egiten, nahi-ta erakunde sustatzailea ENOC izan, haurren defendatzaileen Europako sarea.

Hau da, gure ustez, hori apliketea edo ez apliketea borondate politikoa da, adinbakoaren interes gorenaren funtsezko kontsiderazioa kontuan hartzen dan ala ez. Lege-esparru sendoa dago, 2018an hartutako konpromisoa egoan, eta, horregaitik, jakin gura dogu zer neurri erabilten eta abiarazoten dituan Aldundiak adinbakoaren interes gorenak babesteko bere jarduketetan. Eta, gure ustez, aurrekontu-araudiak eta gainerakoak barruan direla.

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora De Madariaga Martín. En el turno de réplica, por parte de la Diputación, tiene la palabra la señora Antxustegi Ziarda.

La Sra. **ANTXUSTEGI ZIARDA** andreak: Gracias señora Presidenta. Buenos días.

La portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, Eneritz de Madariaga, ha basado su solicitud de interpelación en la Propuesta No Normativa aprobada en 2018. Esta propuesta pedía la incorporación transversal del principio de interés superior del menor en las políticas y actuaciones de la Diputación, con especial atención y prioridad en las políticas sociales.

Adinbakoaren interes gorenak babestea funtsezko printzipioa da administrazio publikoen jarduerak gidatu behar dauzana, eta holan egin da lan Aldundi osoan, eta, bereziki, gizarte-politiketa.

En primer lugar, en la elaboración de las normativas se busca su claridad, que sean comprensibles. Para que dentro de la complejidad que ello puede suponer, la legislación y las políticas públicas sean accesibles también a los menores, salvaguardando siempre el interés superior de los niños, niñas y adolescentes.

Por otro lado, las formaciones solicitadas y planteadas por la Diputación para los y las trabajadoras han sido muy orientadas a los derechos de la infancia. Buscando su formación continua y, sobre todo, la sensibilización sobre este tema para poder integrarse en el trabajo diario.

Haurrek beren bizitzetan eragina daben prozesuetan aktiboki parte hartzea sustatu da, beti be beren eretxiak adierazoteko daukien gaitasuna eta heldutasuna kontuan hartuta, ze ez daigun ahaztu alderdi hori beti neurri behar dala adinbakoakaz zuzenean eragin leien gaitetan esku-hartze zuzena egitean.



Parte-hartzea sustatzeko bide horretan, Gizarte Ekintza Saila babes-sistemako adinbakoentzako politiken eta programen ebaluazio- eta eragin-prozesu bat egiten gabilz, gure sisteman egon diran eta gaur egun adin-nagusitasunera heldu diran pertsonen eretxiak, gogoetak eta balorazioak aktiboki entzunez. Izan be, uste dogu euren eretxiak lagungarri izango jakuzala tresna hobekak eskuratzeko eta beti beharrezkoa dan etenbako hobekuntzan jarraitzeko.

En cuanto a la protección social y económica, se continúa con la implantación de servicios y políticas, y prueba de ello es el incremento del presupuesto del Departamento de Acción Social para garantizar un adecuado nivel de bienestar de los menores. Y, especialmente, para las personas en situación de vulnerabilidad o riesgo, y la atención temprana, los programas de intervención con menores, y las convocatorias de subvenciones son ejemplos del compromiso de esta administración con el bienestar infantil.

Asimismo, se continúa trabajando en la detección precoz de situaciones de riesgo y vulnerabilidad, ampliando los programas de intervención con menores en situación de desprotección, buscando apoyo familiar.

Erakundeen arteko koordinazioa be oinarritzkoa da, eta umeakaz lotutako arloetan (osasuna, hezkuntza, segurtasuna) lan egiten daberen erakunde guztiakaz lankidetzan jarduten dogu, adinbakoeren beharrei modu integralean heltzeko.

Eta amaitzen joateko, dakizuenez, Aldundiak adinbakoeren intimidaderako eta irudirako eskubidea jagoten dau, adinbakoeri kalte egin leien edozein gertaera jentaurrean erakustea saihestuz. Funtsezkoa da umeen eta nerabeen estigmatizazioa saihestea, eta, bereziki, kolektibo ahulena.

Bizkaiko Foru Aldundian oinarritzkoa begitantzen jaku politika publikoetan adinbakoek ez eze, kolektibo guztiak be modu aktiboan parte hartzea, gizarte bidezkoagoak eregiten laguntzen dauelako. Baina argi daukagu, adinbakoek erabagiak hartzeko prozesuan parte hartzen dabenez, demokrazia indartzen dala eta herritarren erantzukizunaren zentzuna sortzen dala txikitatik.

Baina hau guztia ez da gauetik goizera egiten. Zuk aitaturako mekanismoak ezarten gabilz, De Madariaga andrea, eta, ganera, gai batzuk aitatu dozuz, apurka-apurka Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimen dinamikoetan eta abarretan sartuko doguzanak.

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Antxustegi Ziarda. En el turno de respuesta, tiene la palabra la señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora Presidenta. Gracias por las explicaciones también a la señora Antxustegi.

Zuk amaitu dozun lekutik hasiko naz. Nire hitzaldian kontau dodanari buruzko hainbat gai ezartzen zabiziela esan dot. 10 segundo eskaini deutsezu, gainerako denpora zure sailaz berba egiten egon zara eta. Niri iruditzen jat, txarto gogoratzen ez badot, nik interpelazino hori ez neutsula zuri zuzendu, eta ez neutsun zuri zuzendu, Ganbera honetan gai hau atera dodan baxotxean Gizarte Ekintza Sailari zuzendu ez deusadan moduan, arduradunari, ulertzen dodalako, danok ulertu dogun moduan, genero-ikuspegia zeharkakotzea ez dala Teresa Laespadaren eskumenekoa, eta, behingogaitik, diputaduek genero-eraginari buruzko txostena



aurkeztu deuskue aurrekontuagaz batera, gure ustez administrazio publiko honetako sail bakotxari eragiten deusalako. Honegaz gauza bera jazoten da, gertatzen dana da 10 pausu atzetik goazela. Izan be, oindino ez dogu ulertzen lehenengo betebeharra dala Etxe honetan onartzen diran neurrien eta politiken eragina neurtzea, betebeharra dala euron eragina neurtzea, betebeharra dala haurrei zelan eragiten deuten neurtzea, eta, gainera, betebeharra dala mekanismoak jartzea neurrian aplikazioak ekarriko dituan zailtasunak konpondu ahal izateko, edo, gehiago akaso, zergaitik ez?, neurriak aldatzeko.

Zuk esan dozu araudiak egitean kontuan hartzen dala, baina eskuragarriagoak izan daitezkan, kontua ez da umeek eta nerabeek bakarrik ulertzea Ganbera honetan onartzen dan araudia, kontua ez da hori; kontua da kontuan hartzea onartuko dan araudiak umeen eskubideak urratzen dituan ala ez, eta zelan eragiten dauen umeen eta nerabeen bizitzan, baita Bizkaian be. Nik, egia esan, oraindino be ez dot ikusten, alde batetik, zertaz gabilzan ulertzen danik, eta, bestetik, ez danez ulertu, genero-ikuspegiaren zeharkakotasunaren gaia, Etxe honetan oraintsu arte ez da ulertu, eta uste dot horregaz gauza bera gertatzen dala, eta, ganera, ez da ulertzen betebeharrak bati buruz berbaz gabilzala.

Eta hain da holan ze, begira, legegintza-pausu garrantzitsuak emoten doaz Euskadin be. Gogorarazu gura deusut, gainera, zuk be badakizula pentsetan dot orain dala gitxi onartu dala Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako Batzordean Haurrak eta Nerabeak Babesteko Lege Proiektuaren ponentziaren erespena, eta lortu diran akordioen artean, batez be, nire Taldeagaz, guk proponidu genduzalako, paragrafo bat sartu zan, eta paragrafo horrek adierazoten dau adinbakoaren interes gorenaren aplikazioa eta interpretazioa Haurren Eskubideen Batzordearen behaketa orokorrak markautako erispide eta gidalerroei lotuko jakela, 14. zenbakiduna, gaur hemen kontau deusuedana, Nazio Batuek 2009an egin ebena.

Eta zer esan nahi du horrek? 2018an aurreratu genduan moduan, Ganbera honetara ekarri genduan proposamena onartu zanean, beharrezkoa da administrazio publiko honek Aldundi osoan adingabearen interes gorenaren printzipioa zeharkatzea, eta horrek esan gura dau haurren eta nerabeen eskubideen ikuspegia politika publikoetan txertatzea. Ulertu dogu betaurreko moreak jantzi behar genduzala, baina ez dogu ulertzen poltsan beste betaurreko batzuk be euki behar ditugula, eta haurren eskubideenak dira horreetako batzuk.

Halanda ze, Antxustegi andrea, eskertzen deusut gaur niri erantzutera urtetea, baina ez da Antxustegi andrea horri erantzun behar deusana, beharbada Etxanobe andrea edo Izagirre Loroño jauna izan daitekez, sail guztietan elementu metodologikoen zeharkakotasuna ordezkatzen dabenak, zeozelan. Baina ez Antxustegi andrea. Benetan sinisten badogu umea babes-subjektu izatek eskubide-subjektu izateko ikuspegira pasauko garela, 2007an emon behar genduan pausu bat, 2024an gagoz eta oraindino Antxustegi andrea urten da niri erantzutera. Nik eskatzen deusut gaur eretxia emoteko, ahal badozu. Esan dozu "Egingo dogu, hainbat gai ezarriko doguz". Bale, modu sistematikoan aplikauko al da umearen interes gorenaren Administrazio honen neurri guztietan?, interes gorenaren ebaluauko al da?, legedian zehaztuko al da umearen interes gorenaren funtsezkoa dala?, balorauko al dira proponidutako politiken ondorioak?, sartuko al dira emoitzak ebaluetako mekanismoak? Ze hori da Foru Aldundi honek daukan betebeharra.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora De Madariaga Martín. En el turno de réplica, por parte de la Diputación, tiene la palabra la señora Antxustegi Ziarda.

La Sra. **ANTXUSTEGI ZIARDA** andreak: Gracias señora Presidenta.



Adingabearen interes gorena babesteko aitatzen dozun zeharkakotasun hori, De Madariaga andrea, Erakunde honetan funtsezko tresna da sail guztietako funtzionarioei emoten jaken prestakuntzan. Prestakuntza horreek Herri Administrazio eta Erakunde Harremanen Saileko Prestakuntza eta Lanbide Garapeneko Atalak antolatzen edo planteetan dauz, baina, era berean, sail bakotzak bere interesekoak diran ikastaroak emotea planteetan dau. Funtsezko tresna dala dinot, prestakuntzea dalako, azkenean, Bizkaiko Foru Aldundiko langileak sensibilizauko dituana, kasu honetan, adinbakook entzun daitezkan interes goren horretan.

Ondo ulertzen dot zer planteau dozun gaur. Baina errealistak be izan behar dogu, kontu sorta hori apurka-apurka ezarten joan behar da orain aitatu dozun zeharkakotasuna edo betaurreko moreak, azken finean, denporea behar izan da, eta denporea beharko dogu, baina gauetik goizera ezin dira gauzatu, erritmo onean joan behar da. Bizkortzea gustauko litxakigu, jakina, baina erritmo onean joan behar dogu, gelditu barik. Baina apurka-apurka, eta, gainera, orokortasunak alde batera itxita, ze ez dot proposamen zehatzik entzun. Orduan, orokortasunak alde batera itxi, lurreratzen joan, zehaztu, eta esan deusut Sailean ebaluazioak egiten ditugula, zerbitzuaren erabiltzaile izan diran adinbakoen eretxiak jasoaz. Eta oker ez banago, Kultura Sailean be hainbat foro daukiez, adinbakoen eretxia kontuan hartzen dabenak, dinamika, ekintza eta abar desbardinak egin ahal izateko.

Pero especialmente en el Departamento de la Diputación Foral esta sistematización no existe, eso es así, no está sistematizada. Eso es así. Yo diría que una de las herramientas más importantes es la formación, porque, al fin y al cabo, hay que sensibilizar a los funcionarios para que también se pongan esas gafas de los niños y tenerlas en cuenta en diferentes acciones.

No podemos olvidar su participación, pero por otro lado también su protección o darles esa protección. Y cuidamos especialmente, tanto en uno como en otro, la coordinación. Por ejemplo, la coordinación entre las distintas intervenciones, cuando se contrastan los casos en el primer nivel y en el segundo nivel, y cuando se coordina la actuación se consigue una panorámica más global, posibilitando así soluciones más completas.

Horrek esan gura dau kontuan hartu behar dirala Bizkaiko Foru Aldundiaren beste sail eta eragile laguntzaile batzuk: gizarteratze Zerbitzua, emakumeakaz eta familian esku hartzeko zerbitzua, zerbitzu juridikoa, haurren zerbitzuko erakunde hornitzaileak, etab. Horrek esan gura dau beste erakunde batzuk be kontuan hartu behar dirala, halan zelan udal gizarte-zerbitzuak, haurrenak, beste bi aldundiak, osasun-arloak, hezkuntza, justizia eta gizarte-politikak. Lehen esan dodan lez, Fiskaltza. Gainera, esan gura dau ez dirala ahaztu behar haurren ondoizatean eragina euki leikien beste gizarte-eragile batzuk, esate baterako komunikabideak, hirugarren sektoreko erakundeak, unibersidadeak eta abar. Erantzukidetasun-printzipiotik abiatuta, agenteen artean ezartzen diran harremanek informazioa eskatzeko edo jakinarazteko kontaktuak gaintzea bilatzen da, eta aliantzak eta lankidetzako lan-sareak ehuntzen joatea.

Debemos considerar el interés superior del menor desde una perspectiva integral, no estanca. Y como es lógico, es el Departamento de Servicios Sociales el que muchas veces aúna este tipo de coordinaciones o esa integralidad. En general, porque se necesita coordinación entre diferentes agentes e instituciones para tener en cuenta este interés de los menores.

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Antxustegi Ziarda. Pasamos al cuarto punto del orden del día.



La Sra. **SECRETARIA IDAZKARI** andreak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación

[\(R.E.12/E/2024/0000147\)](#)

Autor: Sarasola Lartategi, Arantza (EHB)

Asunto: La evaluación del sistema tributario

Documento Principal:

[\(R.E.12/E/2024/0000147\)](#)

Expediente: [\(12/B/18/0000733\)](#)

4.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna

[\(12/E/2024/0000147SE\)](#)

Egilea: Sarasola Lartategi, Arantza (EHB)

Gaia: Zerga sistemaren gaineko ebaluazioa

Dokumentu Nagusia: [\(12/E/2024/0000147SE\)](#)

Expdientea: [\(12/B/18/0000733\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Por lo tanto, tiene la palabra la señora Sarasola Lartategi.

La Sra. **SARASOLA LARTATEGI** andreak: Gracias señora Presidenta. Buenos días.

Nuestro sistema tributario, enfocado en Bizkaia y en el ejercicio económico 2021, nos da unos números generales bastante gruesos. Hacienda recauda 9.000 M de euros. De ellos, el 75% se obtiene de la recaudación del IRPF y del IVA. De lo que podemos deducir fácilmente que la mayor parte recae sobre los trabajadores/as; y haciendo un desglose de estos números, queda claro que la mayor parte de la responsabilidad recaudatoria recae sobre los los contribuyentes que menos tienen.

A partir del contexto dibujado por estos números generales, así como por otros datos menores relacionados con la configuración de cada impuesto, hace ya tiempo que surgió la necesidad y el debate sobre una reforma fiscal de fondo. Hay que decir, además, que este debate no sólo surgió por parte de los partidos que queremos hacer políticas de izquierdas, sino también de la mano de numerosos agentes sociales.

Halan be, zein izan da Gobernu Taldea osotzen daben bi alderdi politikoen, Euzko Alderdi Jeltzaleak eta Euskadiko Alderdi Sozialistak, zerga-erreformari buruzko eztabaida honen ondorioz izan daben jarrera?

Lehenengo eta behin, denpora irabazi eta eztabaida ahalik eta gehien atzeratu.

Bigarren, zerga-figura nagusietan aldaketa aurrerakoiak sartzeko aukerea ukatzea, adibidez, alokairu soziala fiskalki bultzatzeko moduz berba egingo dogu behin daukagunean, edo zerga-erreformaren eztabaidari heltzen deusagunean, edo Ondarearen ganeko Zergaren tasak Araba, Gipuzkoa eta Nafarroakoakaz harmonizeteaz be berba egingo dogu, zerga-erreformaren eztabaidea heltzen danean.

Hirugarren, orain gure zerga-sistemearen ebaluazioa aurkeztea. Ebaluazio horrek ez ditu ebaluetan araugintza-eskumena daukagun zerga-figura guztiak, eta ez ditu ebaluetan zuek aztertu dozuezan PFEZren eta soziedadeen ganeko zergaren bi zerga-figura horreen alderdi guztiak be.

Eta, azkenik, ebaluazio horri buruzko ondorio batzuk aurkeztea, emoitzeagaz eta Ogasunak emoten dituan txostenen datuakaz zerikusirik ez daukienak.



De hecho, la Diputada compartió ante la prensa y en la Comisión de Hacienda dos conclusiones principales:

Conclusión 1: Tenemos un sistema tributario progresivo, y además, gracias a los cambios, a los cambios que se introdujeron, que ustedes aprobaron en el IRPF y en el IS, hemos progresado en equidad y progresividad del sistema. Ustedes dicen eso. ¿En qué se basan para afirmarlo? Por ejemplo, dice que en el IRPF se han establecido nuevos tramos impositivos para los tramos altos, y que la deducción por edad sólo se aplica a los tramos de renta baja.

¿Se puede concluir realmente de ahí que nuestra regulación del IRPF es progresista? De verdad se puede concluir que el IRPF es progresista? ¿Han analizado el impacto del resto de contenidos del impuesto en su progresividad, es decir, han valorado el impacto de todas las deducciones en las personas con rentas más bajas y más altas? Por ejemplo, ¿es la de EPSV una deducción progresiva teniendo en cuenta que las personas de renta baja no tienen ahorros para ingresar en este tipo de sistemas? Han tenido ustedes en cuenta, por ejemplo, que los que más descuentan de las deducciones de vivienda son las rentas altas, tanto en alquiler como en propiedad.

Pero lo que es peor, ¿cómo puede deducirse de esto que todo nuestro sistema tributario es progresivo? ¿Han estudiado con referencia a todo el sistema fiscal lo que aportan las rentas del trabajo y las rentas del capital? ¿Coincide esto con el peso relativo en el PIB de los salarios por un lado, y las empresas o los accionistas por otro? ¿Lo han tenido en cuenta para, a la postre, extraer con tal rotundidad esta conclusión?

Azkenean ez dozue egin agindutako ondorioak idatzita daukazuezalako ebaluazioaren datuak izan aurretik be. Baina, horrezaz gan, bigarren ondorio bat be plazaratu dozue, eta hori, gura badozue, kezagarriagoa da, dinozue. Diru-bilketa handitu egin da eta, gainera, zerbitzu publikoei erantzuteko diru-bilketa nahikoa bermatzen da; diru-bilketa nahikoa bermatzen da eta Osakidetzako zerbitzuak dagozan moduan dagoz. Gure udalerrietako udalei be galdetu beharko litxakie zer pentsetan daben diru-bilketa nahikoari buruz. Gure ustez, baieztapen kategorikoa da, gitxienez.

Eta, gainera, datuetara bagoaz, ¿qué vemos?

La recaudación ha aumentado gracias a los cambios que hicimos en su día en los impuestos. Y es cierto que si miramos al IRPF, eso es cierto, se ha incrementado la recaudación gracias a estos cambios.

Baina Soziedadeen ganeko Zergan sartutako aldaketen eragina aztertzen badogu, aldaketa horreei esker diru-bilketak gora egin dauela edo 2021ean 110 milioi eurotan hazi zala esaten tematu arren, 27 milioi euro murriztu zan. Tranpa egin dozue, engainetan ahalegindu zarie, datu positiboen artean zatikatutako datuak sartuz, eta ondo dakizuenez, datu horreek ez jakoz kuota efektiboari gehitzen, kendu baino.

Horrenbestez, bere garaian onartu zenduezan edo Soziedadeen ganeko Zergan onartu zenduezan aldaketen ondorioz, diru-bilketa murriztu egin da. Eta, gainera, onartu ziran aldaketen artean badago bat zuek harrotzeko darabilzuen, zeuen ustez horri esker be handitu egin dalako diru-bilketea. Horren arabera, enpresek zerga-oinarri negatiboen kontzeptuan kendu leikiena mugatzea. Baina ez zenduen kontuan hartu neurri horregaz batera onartu zenduela, ekitaldi jakin baten kenkaria egiteko aukerea mugatuko egingo zala, baina 30 urte izango ebezala, eta ez 15, zerga-oinarri negatiboak kendu ahal izateko. Beraz, epe luzean metatutako eragina jaitsiera handiagoa izango da bilketan, eta ez enpresa handien irabaziei gehiago hartzea.



Por tanto, ya que cuando hablamos del Impuesto de Sociedades dicen que la recaudación ha aumentado, aquí les pedimos que hagan una rectificación pública de la misma, porque esto no es una cuestión de interpretación, esto es un dato objetivo, los cambios en el Impuesto de Sociedades han supuesto una disminución de la recaudación.

Además, dicen que desde 2017 la recaudación en el Impuesto de Sociedades ha aumentado globalmente, no sobre los cambios aplicados, sino respecto a la evolución general.

De nuevo se basan en datos inventados para llegar a dicha conclusión. Izan be, datuetara jo ezkeru, 2017tik 2021era, 2021ean baino ez da handitzen kuota efektiboa. Baina, ganera, ez dozue datu hori Barne Produktu Gordinaren igoereagaz lotzen, eta ez dozue lotzen enpresen diru-sarrerakaz eta kontabilidateko emoitzeagaz be.

Los beneficios de las empresas en 2017 ascendieron a 7.500 millones de euros, frente a los 868 millones que tuvieron que pagar a Hacienda. Es decir, el 12%. Y en 2021, en cambio, es cierto que lo que han pagado a Hacienda han sido 980 millones, pero sus beneficios han sido 11.500 millones de euros. Por lo tanto, sólo el 9%. Esto significa que, gracias al sistema tributario, las empresas pagan a Hacienda cada vez menos.

En resumen, este ejercicio de evaluación que han realizado ha sido totalmente parcial, ya que sólo han analizado dos de las figuras impositivas existentes y, además, han analizado únicamente el impacto recaudatorio de los cambios introducidos en su momento, además, no en términos de progresividad real.

Eta kezkarriena da, ekitaldi hau holan egin badozue, ebaluazioaren irismena mugatuz eta datuak desitxuraturaz, plazaratu dozuen ondorio handira heldu gura zendualako dala: ez dala beharrezkoa zerga-erreforma bat egitea, nahikoa izango litzatekela PFEZaren eta Soziedadeen ganeko Zergaren barrikuseta txiki bat egitea.

En EH Bildu no estamos en absoluto de acuerdo con tal conclusión, ni con lo que indican los datos presentados por ustedes.

Por ello, les solicitamos que completen este ejercicio de evaluación fiscal. Completen el análisis de todas las figuras tributarias en las que tenemos capacidad normativa y completen la valoración de todos los elementos de dichas figuras tributarias, cerrando en el plazo máximo este ejercicio de complementación, para que no se retrase sine die el debate sobre la reforma fiscal que necesitamos.

Y además, para hacer este debate...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Vaya terminando, señora Sarasola Lartategi.

La Sra. **SARASOLA LARTATEGI** andreak: Tengo un minuto, no? A, vale, perdón. Listo!

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Sarasola Lartategi. En el turno de réplica, por parte de la Diputación, tiene la palabra la señora Berrojalbiz Zabala.



La Sra. **BERROJALBIZ ZABALA** andreak: Gracias señora Presidenta, y buenos días.

En mi interpelación de hoy trataré de dar respuesta a las muchas preguntas que plantean en el grupo juntero EH Bildu las evaluaciones de las reformas del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas 2014 y 2018 y del Impuesto sobre Sociedades.

Lo que sí quiero adelantar es que estoy realmente satisfecha, ya que ninguna de las preguntas que se plantean se refiere a las cuestiones incluidas en los análisis concretos de evaluación recogidas en los informes. Un signo de la calidad, claridad y rigor de la información contenida en estos informes. Y estando en ello, quiero agradecer desde esta tribuna a todas las personas del departamento de Hacienda que participan en este trabajo.

Volviendo a la interpelación, y para comenzar mi intervención, gogoratu gura neuke, zuk ondo dakizunez, Sarasola andrea, Foru Aldundi honek, ganerako aldundiakaz eta Eusko Jaurlaritzagaz batera, EZKOn barruan hartutako konpromisoa PFEZren eta Soziedadeen ganeko Zergaren 2014ko eta 2018ko erreformen ondorioen ebaluazino kuantitatiboa egitea dala. Zertarako? Erreforma horreek onartuta lortu gura ziran zerga-politikako helburuak zein neurritan bete diran egiaztetako, eta, ondoren, zerga-berrikuspeneko lanei ekiteko. Konpromiso hori atzerapenik barik eta epearen barruan bete dogu.

Barrikuspen horri ekiteko gure planteamentuan, fiskalitate zuzen eta sendo batetik abietan gara, eta emoitza onak emoten dabil, ebaluazino-txostenetan jasoten dan lez, eta gaur barriro berresten dodana. Halanda be, fiskala ez da gure gizarteak eta gure ekonomia- eta enpresa-errealidadeak hamarkada batean jasan dabezan aldaketa handietatik at geratu leiteken eta geratu behar dauen politika publikoa. Horregaitik, gatx egiten jat zuen nahasmena eta ikuspegia ulertzea; izan be, dirudienez, ez da printzipio gidari bat errentaren eta soziedadeen araudian txertatzeari ekin beharreko barrikuspenarako, gure lurraldeko persona fisikoek eta juridikoek erronka demografikoari, ekologiko-ingurumenekoari eta teknologiko-digitalari ahalik eta ondoen aurre egiten lagundu deiegun.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eretziz, printzipio gidaria eta lehenasuna da. Eta horixe da, hain zuzen be, ondorio horreei eta erronka horreei buruz egin dodazan berriarazko aitamenen errazoa. Zure galderetatik, gainera, ondorioztatu daiteke ez zagozala ados Bizkaiko PFEZa 2014ko erreformagaz progresibotasuna handitu jakon zerga bat izateagaz, eta, beraz, adierazren dauenik ahulenak dirala erreforma horregaz eta sistemeagaz, oro har, zama handiena hartu dabenak.

Jakin gura neuke zein elementutan oinarritzen dan baieztapen hori, nik emongo deusdudazan datuakaz kontrakoa defendatzen dogu-ta. Adibidez, zuk be halan adierazo dozu, tarifa bitan tarte barriak sartzeagaz erlazinonaturako datuak; aurrezkiarena eta orokorra. Tarifa orokorreko 3 tarte eta tasa marjinal barriek, %49raino helduz, Estatuko tarifarik progresiboenetako baten aurrean jartzen gaitue, eta, gainera, 2022an 15.000.000 eurotik gorako bilketa-eragina sortu eben. Ildo beretik, ia 23.000.000 euroko bilketa-eragin positiboa izan dau aurrezkiaren tarifa aldatuta, karga-tasa handienen eta, beraz, progresiboen likidazino-oinarria 2tik 5era handitu dalako.

Baina 2014ko erreformaren ebaluazinoaren emoitza horreek, inongo dudarik barik, agirian ixten dabe Bizkaian PFEZaren progresibotasunak gora egin dauela. Horri, ostera, ez deusazu bape baliorik emoten, eta harritu egiten nau zu edo zure taldea horregaz hainbesteko ardura badaukazue. Ze ondo jakingo dozunez, tarifa progresiboago horreek bateratzea foru-lurraldeetako PFEZren elementurik bereizgarrietako bateagaz, hau da, zerga-onura ia guztiak zerga-oinarriko murriztapen gisa erabili beharrean kuota-kenkari gisa erabilteagaz, Zerga hau likidatzeko eskema bat eratzen dau, Bizkaiko zergapetze personalean progresibotasun-printzipioaren eraginkortasuna modu esponenzialean sustatzen dauena. Izan



be, horreetako batzuk 2014an birkonfiguratu genduzan, zuk ondo esan dozun lez, progresibidade-plus bategaz, eta errenta-maila jakin batzuetara mugatutako adinagaitiko kenkariari buruz nabil.

Zehazki galdetu dozu errenta-mailen araberako kenkarien banaketaz be, eta horretan jakinarazten deusut informazino hori entregau deusugun ebaluazino-txostenaren 2. eranskinean aurkituko dozula. Aurreko guztiari gehitu behar jako gure herritarrentzat une gogorretan erreazinonatzan jakin dogula, gure araugintzarako gaitasuna erabiliz, progresibotasun-printzipioa gidari dala. Eta horren adibide dira 392.639 aitorpenak, 2022an 200 euroko ezohiko kenkaria aplikau dabenak, eta horrek 72.000.000 euroko injekzinoa ekarri deutse 35.000 €tik beherako errentak dituen zergadunei.

Ikusten dozunez, kezkatu ez eze, Bizkaiko IRParen progresibotasun-printzipioaren bermeaz arduratu be egiten gara. Holan, zergadunen progresibotasuna, gaitasun ekonomikoa eta inguruabar personala birbanaketa eta arretarako printzipio gidari moduan, Bizkaiko zergadunek aitorpenetan aplikau dituen gizarte kenkarietan agertzen dira 2022ko PFEZn. Eta horreetakoren bat azpimarratuko deusut:

Ondorengoengatik kenkaria apliketan daben 223.000 aitorpenetarako 160.000.000 euro, errenta mugatua daben zergadun zaharrenek aurkeztu dabezan 123.000 aitorpen baino gehiagotan 76.000.000 euro.

Beste adibide argi bat dira alokairuagaitik kenkaria aplikau daben zergadunak, 50.000 baino gehiago, 55.000.000 euro. Edo menpeko personei edo desgaitasunei jagokezan kenkariak apliketan jakezan 75.500 aitorpenak, 87.000.000 euro.

Azken baten, kuotan apliketakoak diran kenkariekin eta horreek inflazinora egokitzeko egiten diran etenbako barrikuspenakaz, hau da, PFEZa ordaindu behar daben zergadunen ahalmen ekonomikora egokitzeko, modu erabagigarrian laguntzen dogu progresibotasun-printzipioa gauzatzan, eskaintzen deusudazan datuek erakusten daben lez, Bizkaiko zergadunek ordaintzen daben PFEZean txertatzan da.

